



**OSASUN ZENTROKO GURASOEN
GALDEKIZUNEN EMAITZAK**

(IURRETAKO OSASUN ZENTROA)

Galtzagorri Elkarte
2017ko azaroa



SARRERA

- Txosten honetan, lurretako Osasun Zentroan gauzatu den esperientzia gidatu batean parte hartu duten gurasoen galdekizunen erantzunak jasotzen dira. Esperientzia honen oinarrian hizkuntz erabileraren estimulazio goiztiar bat dago, literatur egituren erabilpenaren bidez.
- Esperientzia martxan jartzen da osasun zentroko pediatria lan taldean. 40 haurren jarraipena egiten da, jaiotzen direnetik 24 hilabete bete bitartean, hain zuzen ere. Haurraren osasuna hobetzeko pediatria taldeak eskaintzen dituen aholku andanaren artean, komunikazioaren beharra azpimarratzen da; komunikazioak haurraren garapen kognitiboan duen eragina azpimarratuz.
- Tradizioak kantu txikiak, jolasak eta kontakizunak erabili izan ditu lehenengo harreman horiek bideratzeko, eta proposamenak erabilpen hori bultzatzen du hain zuzen ere. Horrez gain, baliabideak eskaintzen zaizkie gurasoei, adinez adin, haurrekin harreman horiek gauzatzeko.
- Lehenengo hilabete hauetan erabiltzen diren egiturek eredu errepikakor bat eskaintzen diote haurrari; erritmo horiek erabat loturik daude aprendizaiaren eskemekin, patroi egokiak osatzen dituzte ulermen estrategiak garatu eta irakurketa gaietan derrigorrezko nozioak bereganatzeko.
- Neurolinguistikak azpimarratzen du erritmoaren eta aprendizaiaren artean dagoen harreman estu hau eta berresten du modu zientifikoan.
- Gure esperientzia honetan, aintzakotzat hartu ditugu emaitza frogatu hauek, eta bidea irekitzen dugu etorkizunean esperientzia berrietan balizko emaitzak eraikitzeko.
- Anbulatoriora haurrek egiten dituzten bisitaldi batzuetan, hizkuntzaren garapena bultzatzeko aholkuak eskaini dira, une horretan haurrak duen hizkuntzaren garapen mailari egokitutakoak. Haurraren adin tarte bakoitzean literatur pieza egokiak eskaini dira, “errezeta” batzuk erabiliz. Hurrengo bisitaldian, berrikusi da gurasoekin irizpideak erabili dituzten ala ez, edota horiek aurrera eramateko izan dituzten zailtasunak.
- Jarraipen hauen emaitzak aurkezten ditugu txosten honetan, eta gurasoek esperientziari buruz eskaintzen duten balorazioa.
- Esperientzia lurretako Osasun Zentroko profesionalek eta Bularretik Mintzora egitasmoaren arduradunek gauzatu dute 2016. eta 2017. urteetan zehar.
- Guztira **40 haurren familiek erantzun** diote galdekizunari: haurrak jaio eta bi urte bete arteko bitarte osoan gauzatu da galdekizuna.

METODOLOGIA

- Jarraipen honetarako irizpideak banatu ostean, aldian behin, galdekizun txiki bat bete dute gurasoek, haurraren adina aurrera doan neurrian, zenbait aldagaien presentzia edota balorea eskatuz. Hauek izan dira aldagaiak:

1. 4 HILABETE

- 1.1. Literaturari lotutako erritu motaren bat egitea
- 1.2. Haurrari gustatzen zaion joko edo kantaren bat aurkitzea
- 1.3. Bularretik Mintzora-ko materialaren erabilera
- 1.4. Haurrari kantatzerakoan, bere gorputzarekin jolastea
- 1.5. Haurren gorputz erreakzioa jolas eta kantuen aurrean

2. 9 HILABETE

- 2.1. Literaturari lotutako erritu motaren bat egitea
- 2.2. Kantatzerakoan, haurrari doinuarekin eta zezelkatzen laguntzea
- 2.3. Haurrari liburuak erakutsi irudien zehaztasunak adierazten zaizkion bitartean
- 2.4. Umearen adierazpena liburuak erakusterakoan
- 2.5. Haurrak abestiei eta jokoei laguntzeko keinuak egiten ditu

3. 12 – 18 HILABETE

- 3.1. Literaturari lotutako erritu motaren bat egitea
- 3.2. Kantatzerakoan, haurrak soinuak eta erreplikapenak egitea
- 3.3. Ezagutzen dituen hitzei haurrak soinuak gehitzen dizkie
- 3.4. Liburuak erakusteko eskatzen du haurrak
- 3.5. Liburutegira joatea
- 3.6. Liburutegira joatea gustatzen zaio haurrari

4. 12 – 24 HILABETE

- 4.1. Literaturari lotutako erritu motaren bat egitea
- 4.2. Bakarrik jolastean kantatzea
- 4.3. Istorio txikiak ulertu eta horietaz gozatzen du
- 4.4. Ilustrazioak begiratzuz, haurrak istorioak kontatzea
- 4.5. Irakurketa uneei buruz gurasoek duten iritzia
- 4.6. Liburutegira joatea
- 4.7. Liburutegira joatea gustatzen zaio haurrari

5. AZKEN BALORAZIOA




TXOSTENA

OSASUN ZENTROKO GURASOEN GALDEKIZUNEN EMAITZAK


(Iurretako Osasun Zentroa)

1.- LITERATURARI LOTUTAKO ERRITU-MOTAREN BAT EGITEA


1.1. 4 hilabete




1.2. 9 hilabete



1.3. 12-18 hilabete



1.4. 18-24 hilabete




ONDORIOAK:

Lehenengo atal honetan gure ahalegina izan da etxean denbora bat eskaintzea haurrekin jolasak, kantuak eta ipuinak kontatzen aritzeko eta horrekin erritu bat sortzea.


Ikusten da garapen bat suertatzen dela lehenengo bisitalditik aurrera. "Inoiz ez" dutela egiten aitortzen duten gurasoen kopuruak atzera egiten du nabarmen, haurra handitzen den neurrian. Laugarrenean, atzera egiten du, berriz ere, kontzeptu honek.

2 - HAURRAK EGITURA LITERARIOEKIKO ERAKUSTEN DUEN ATXIKIMENDUA


2.1.- 4 Hilabete. Haurrari gustatzen zaion joko edota kantaren bat aurkitzea




2.2. 9 Hilabete. Kantatzerakoan, haurri doinuarekin eta zezelkatzen laguntzea



2.3. 12-18 Hilabete. Kantatzerakoan, haurrak soinuak eta errepikapenak egitea



2.4. 18-24 hilabete. Bakarrik jolastean kantatzea




ONDORIOAK:


Denboran zehar atzematen da gustuko egiturak aurkitu ondoren, gurasoek lagundu egiten dietela haurrei beren hizkuntz ekoizpenak areagotzen, eta egitura hauen erabilpenak lagundu egiten diela hizkuntza sortzen. Kantatzea gustuko dute gainera, haurrek bakarrik kantatzen baitute beren jarduera naturalean.

3 - MATERIAL ANITZEN ERABILPENA KOMUNIKAZIOAREN LAGUNGARRI GISA


3.1. 4 Hilabete. Bularretik Mintzora-ko materialaren erabilera




3.2. 9 Hilabete. Haurrari liburuak erakutsi irudien zehaztasunak adierazten zaizkion bitartean



3.3. 12-18 Hilabete. Liburuen aurrean, ezagutzen dituen hitzei, haurrak soinuak eransten dizkio



3.4. 18-24 Hilabete. Istorio txikiak ulertu eta horiekin gozatzen du




ONDORIOAK:

Denborak aurrera egin ahala, entzumenezko ereduak tokia uzten dio oinarri bisuala duten baliabideei.


Nabarmen geratzen da entzumenezko kulturarengandik gertatzen ari den urrunketaren eragina. Bularretik Mintzora egitasmoaren apustua, hain zuzen ere, entzumena ikusizko baliabideei gailentzea izan da. Eta beraz, alor hau nola suspertu aztertu behar da.

4- HAUREN ADIERAZPENAK LITERATUR EGITUREN AURREAN


4.1. 4 Hilabete. Haurrari kantatzerakoan, bere gorputzarekin jolastea




4-2. 9 Hilabete. Haurren adierazpena areagotzen da liburuak erakusterakoan



4.3. 12- 18 Hilabete. Liburuak erakustea eskatzen du haurrak



4-4. 18-24 Hilabete. Ilustrazioei begira, haurrak istorioak kontatzea




ONDORIOAK:


Haurren adierazpenaren bilakaera eta helduen ekimena oso loturik daude; kasuan kasu desberdintasunak badaude ere, kontaktak eta hurrekin zuzenean aritzeak ezinbesteko eragina izango dute irakurketaren inguruko ekintza guztietan. Kantu, jolas eta ipuinen bidez aritzean, uztartzen ditugu ekimen literarioa eta komunikaziorako trebetasunen bilakaera, eta guzti hori sentazio on baten gerizpean; ondorioz, adierazpenak ugaritu eta hobetuko dira.

5- HAUREK ETA GURASOEK ELKARREKIN IGAROTZEN DITUZTEN IRAKURKETA UNEEZ DUTEN IRITZIA


5.1. 4 Hilabete. Haurren gorputz erreakzioa jolas eta kantuen aurrean



5.2. 9 Hilabete. Haurrak abestiei eta jokoei laguntzeko keinuak egiten ditu



5.3. 18-24 Hilabete. Irakurketa uneen gurasoen balorazioa




ONDORIOAK:

Istorio bat partekatzean edota kantu bat erabiltzean, intimitate uneak sortzen dira haurren eta gurasoen artean. Zenbaitetan barre, beste hainbatetan beldurra edota amorrazioa, gurasoek eta haurrek modu baikorrean baloratzen dituzte, emaitzetan ikusten den moduan, une garrantzitsu hauek.


Bilakaera guzti hau ezinezkoa litzateke haurren eta gurasoen borondate eta ekimenik gabe; guztiz garrantzitsua da haurrengan eta gurasoengan sentrazio positiboak hautematea, irakurketa uneen eragina sistematizatze aldera.

6- LIBURUTEGIRA JOATEA


6.1. 12-18 hilabete. Liburutegira joatea




6.2. 12-18 hilabete. Liburutegira joatea gustatzen zaio haurrari



6.3. 12-24 hilabete. Liburutegira joatea




6.4. 12-24 hilabete. Liburutegira joatea gustatzen zaio



ONDORIOAK:

Liburutegia kontaketa eta irakurketa gizarteratzen den gunea den neurrian, harekiko atxikimendua komenigarria suertatzen da irakurketa ohiturak sortzen ari diren unean.

7-AZKEN BALORAZIOA: EKIMENAREN INGURUAN GURASOEN BALORAZIOA



AZKEN ONDORIOAK

Iurretako Osasun zentroan egin den jarraipen lan honetan, alor desberdinak baloratu behar dira:

- Alde batetik, pediatria sailan alor berri bat sortu da: literaturak haurraren garapenean duen eragina aztertu eta ohitura osasuntsuen artean sailkatu da, gurasoei azaltzeko propio sortu den protokolo baten bitartez.
- Bularretik Mintzorako profesionalek formazio saio batzuk eskaini dizkiete pediatriako profesionalei eta material egokiak banatu, gurasoek euren seme-alaben irakurketa ohiturak susta ditzaten jaiotzen diren une beretik.
- Beraz, pediatriako profesionalek eskaintzen dituzte irakurketa ohiturak finkatzeko gomendioak eta irizpideak.
- Protokoloa sortzeko haurraren hizkuntzaren garapena hartu da abiapuntu gisa. Balizko bilakaerari erantsi zaizkio garapena kitzikatze ekintza xumeak; modu natural batean egiten diren ekintzak azalduz eta garapen kognitiboan hauek duten garrantzia azpimarratuz.



Beraz, protokolo horren arabera, bisitaldi batzuetan osasun profesionalek irakurketa ohiturak sustatzeko irizpideak eskaintzen dizkiete gurasoei; eta beste batzuetan aldiz, gurasoengandik informazioa jasotzen dute, baita aurretik osasun profesionalek emandako jarraibideak burutzeko izan dituzten zalantzak eta kezkek ere.

Ekimenez ekimen, haurrak irakurketaren inguruko atal desberdinak bere egiten ditu; bere parte-hartzea ere gero eta handiagoa suertatzen da. Kantuak eta jolasak ahoskamena areagotzeko oinarrian jartzen ditu, honen adibide argiak izanez gero, noski. Ipuinekin hastean sinbolizazio gaitasuna areagotuko du, entzundakoak gogoan, errealitate paraleloak sortzen dituenean. Baina, azkeneko pausoa da irakurketa inguruko ekimenak gizarteratzea, biblioteca eta eskola bezalako erakundeetan.

Bilakaera guzti hau ezinezkoa litzateke haurren eta gurasoen borondate eta ekimenik gabe; guztiz garrantzitsua da haurrengan eta gurasoengan sentzazio positiboak hautematea, irakurketa uneen eragina sistematizatze aldera

Bukatzeko azpimarratuko dugu ekimen osoak gurasoen onarpena eta balorazio ona jaso duela. Balorazio hori guztiz garrantzitsua da gure iritzian, izan ere, Galtzagorri Elkartearen helburu garrantzitsuak biltzen ditu bere baitan ekimen honek: irakurketaren plazera aldarrikatu eta Euskal Haur Literatura sustatzea.